

ZER BEHAR DA?

Testua: GIANNI RODARI

Irudiak: SILVIA BONANNI

Itzulpena: FERNANDO REY

Kartoi gogorrean egina. 22 x 30 cm. 32 or. 15 €.

Zer behar da? (euskara)

ISBN 978-84-9172-164-2. Gaur egungo klasikoak.

¿Qué hace falta? (gaztelania)

ISBN 978-84-92608-33-1. Clásicos contemporáneos.

Que fai falta? (galegoa)

ISBN 978-84-8464-753-9. Tras os montes.

Què ens cal? (katalana)

ISBN 978-84-16804-86-3. Clàssics contemporanis.

Mahai bat egiteko, egurra behar da.


Egurra egiteko, arbola behar da.

Arbola egiteko...

Gianni Rodariren obra funtsezkoa da, eta, haren jaiotzaren mendeurren, ezinbestekoa da berriz irakurri eta zabaltzea. «Zer behar da?» ipuinari (arrazoibide deduktiboa edo silogismo bat dago oinarrian) indar berritzailea dario, xumetasuna eta xarma. Agerikoa da testu honetan Rodarik nola bihurtzen zituen hitzak jostailu poetiko eta adimentsu. Eta Sergio Endrigo kantautore italiarrak testua kanta bihurtu zuen.

Kontakizunak hurrenkera logikoa du, pausoz pauso, eguneroko objektu baten jatorriari jarraikiz, eta naturaren muin eder eta sakona du helmuga: zerbait handia lortzeko, maiz aski da zerbait ñimiñoa. Liburu honetan dotorezia desberdinak daude loturik: geometriarena (egitura zirkularrekin, poesiaren urrinarekin), eta proposamen estetiko originalarena).

Silvia Bonanniren collageetan artearen sormenezko jauzi eraldatzailea nabari da. Proposamen aberatsa da, koloretsua, eta nahasirik ageri dira paper inprimatuaren puskak eta oihalak.



- **Gala:** kausalitatea; pentsamendu arrazional eta zientifikorako hastapenak; natura.
- **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.
- **Nabarmenezkoak:** Gianni Rodariren jaiotzaren mendeurren; jolas poetikoa; collagea, tipografia irudietan integratua; Sergio Endrigoren kanta: «[Che cosa ci vuole](#)». Rodariren beste bi liburu: «[Ipuinak nahasten](#)» eta «[Zenbakiak asmatzen](#)» (Kalandraka-Pamiela).
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/zer-behar-da-eusk>

Gianni Rodari

(Omegna, Lombardia, 1920 - Roma, 1980)

Polítikaria, kazetaria, pedagogoa eta idazlea. Andersen Saria jaso zuen 1970ean. Irakasle Eskolan ikasi, eta eskola partikularrak ematen hasi zen. Italiako Alderdi Komunistari loturik, kolaboratzaile aritu zen zenbait egunkarientzat (*L'Ordine Nuovo* eta *L'Unità*), eta haietan haur literatura landu zuen, bere egiazko grina. Errealitatean oinarriturik *Arbolen planeta* egin zuen, baina umorea eta arrakasta gero iritsi ziren, obra hauekin: *Ipuin luzeak irribarre batekin*, *Le avventure di Cipollino* edo *Il libro delle filastrocche*. *Novelle fatte a macchina*, *Telefonozko ipuinak* eta *Jolas egiteko ipuinak* ditu maisu-lanak, herri literaturaren bertsoak egiteko pentsatuak, erakusteko ezen laburtasunez istorio onak sortzen direla eta irakurleari ipuinaren bukaera aukeratzeko bidea ematen diola. Eskoletara bisitak egin eta umeein lan egin eta gero, *Fantasiaren Gramatika* idatzi zuen (1973); pedagogia garaikiderako aportazio handia, zeinean adierazi baitzuen literaturak iraultzailea eta askatzailea izan behar duela.
<https://100giannirodari.com>

Silvia Bonanni

(Milan, 1972)

Irudigilea, margolaria eta argazkilaria. Brerako Arte Ederretako Akademian lizentziatua eta Milango R. Bauer eskolan diplomatua. Arlo eta zeregin askotara ongi egokitzen den artista da: 20tik gora liburu irudidun ditu argitaratuak zenbait herrialdetan. Dotore moldatzen da collage tradizionalarekin, baina baita teknika moderno digitalekin ere. Birtziklajeari buruzko lantegiak egiten ditu umeentzat liburutegi, liburu-denda, museo eta nazioarteko biltzarretan.
<http://www.silviabonanni.it>